

bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak.



Gehiago jakiteko

Biodibertsitatea zaintzea gure ongizatea bermatzea da. Horretan pentsatu al duzu? Zer zerikusi du biodibertsitatearen galerak nirekin?



natura 2000



Inoiz sortu den makinarik perfektuena

Natura mekanismo perfektua da, bere piezak garatuz joan dira 3.000 milioi urtean baino gehiagoan! denak behar bezala funtziona dezan... ! Espezie guztiek funtzio jakin bat dute ekosistemaren sare konplexuan, erloju baten mekanismoaren pieza txikiek duten moduan.

Biodibertsitatea da biziak har dezakeen forma aniztasuna eta aberastasuna adierazteko erabiltzen dugun terminoa: gene barietatea, landare eta animalia espezie barietateak, espezie baten egon daitezkeen arrazak, paisaiak eta ekosistemak.

Biodibertsitatea da gakoa; ekosistemek funtzionatzeko beharrezko engranajea; beraz, ezinbestekoa elikagaiak lortzeko, lehengaiak lortzeko, medikamentuak sortzeko, izurriteak kontrolatzeko, ura arazteko, lurzorua sortu eta zaintzeko, hondakinak deskonposatzeko, gure landaketak polinizatzeko, atmosfera garbitzeko eta klima erregulatzeko. Gizakiok ezin dugu biodibertsitaterik gabe bizi. Hau dela eta, biodibertsitatea zaintzea ez da bizitzaren berme hutsa ; gure bizitzaren bermea da.



Ba al zenekien...?

Medikamentu guztien
%75ek jatorri biologikoa du.

Biodibertsitatearen balioa

Ikerketa askok berretsi dute naturarekin kontaktua izateak onura handiak dakarzkioda gure osasun eta ongizateari. Arrazoi hori dela medio, herrialde batzuetan osasun programak jarri dira martxan ingurune naturaletan.

Programa hauek era positiboan eragiten dute pertsonen osasunean, buruko nekea gutxitzen laguntzen dute, lasaigarriak dira, gaixoen errekuperazio aldia laburtzen dute, memoria eta gure gogo-aldartea hobetzen dute.

Era berean, ekintza hauei esker pertsona gehiagorekin erlazionatzeko aukera ematen dute, eta horrela, giza-sareak hedatzeko, gure oreka pertsonala eta emozionala hobetuz.

Gainera, naturak gure aisialdiaz gozatzeko guneak eskaintzen dizkigu. Ibilaldiak eta natura-ekintzak ohitura dira euskaldunen artean, eta gure ongizatea eta bizitza-kalitatea hobetzeko baliabidea ere bada.

Ba al zenekien...?

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera gaur egungo gaixotasunen %30 ingurumena hondatzearen erruz sortzen dira.



Hau guzti hau bereziki garrantzitsua izan daiteke Euskadin, hemen populazioaren % 81 hirigunean bizi baita.

Hori gutxi balitz, biodibertsitateak etekin ekonomiko handiak sortzen lagundu dezake, baita lanpostuak sortzen ere. Eskozian ere natura ibilaldiak egiteko zaletasun handia dago eta bertako komunitateentzat negozio emankorra da, urtero ekintza horri esker 600 milioi euro irabazten baitituzte. Naturaren inguruko turismoak 70 milioioko dirusarrera zuzena dakar eta 2.000 lanposturen sorrera. Belgikan, Hoge Kempen-en Parke Naturala izendatu dute. Parkearen administratzaileek kalkulatu dutenez, espero dituzten 700.000 bisitarik hurrengo bost urteetan gastatuko dituzten 2,4 milioiek bertako ekonomiari lagunduko diote. Beraz, egindako inbertsioak 10 urtetan berreskuratuko lirateke, eta hemendik aurrerakoak etekin gordina izango dira. Antzeko kasua da Alemaniako Ingurumen Ministerioak duela gutxi egindako ikerketan azalduetako. Bertan, azaltzen da lan aukerak nabarmen handitu egin direla Alemaniako Natura 2000ko hiru zonalde handietan, turismoaren garapenari eta bertako produktuen ekoizpen eta salmentari esker.

Biodibertsitatearen etekin zuzen hauek dira, ziur aski, errazen nabaritzen direnak. Baina... pentsatu al duzu inoiz landareek burutzen dituzten funtzioen balioaz? esaterako arnasten dugun airea arazteak edo behar dugun lurzoru emankorra galdu ez dadin higaduratik babesteak duen balioaz? Basa-bizitzak zeharka edo ikusten zailagoak diren etekin garrantzitsu asko ere eskaintzen dizkigu, biziarentzat onarri diren funtzio ekologikoak eta gizartearentzat ezinbestekoak diren beste hainbat prozesu betetzen dituztenak.

Atlantikoaren bestaldean, New York hiriak 1.500 milioi dolar inguru gastatu zituen hiria ur gezaz hornitzen duten Catskill-eko mendiak babestu eta leheneratzeko. Iragazketa-plantaren alternatibarako egin beharko litzatekeen inbertsioa 5 edo 6 aldiz handiagoa izan zatekeen eta gainera, ustiapen-gastuak urtero 300 milioi dolarrekoak izango ziren. Beraz, New York-eko zergadunek 7.000 eta 8.000 milioi dolar inguru aurreztu dituzte eta gainera, baso eta hezegune zonalde zoragarria babestea lortu dute.

Txinan, Yangzi ibaiaren goi-ibilguaren ur-hartunearen eremuan oraindik existitzen diren basoak moztu gabe uztea, egurra ateratzeko erabiltzea baino 10 aldiz baliotsuagoa dela kalkulatu dute. Izan ere, basoek ibaiaren ur-goraldiak kontrolatzen laguntzen dute.

Ikusi duzun bezala, arrazoi ekonomikoek ere justifikatzen dute biodibertsitatea zaintzea.

Aniztasun biologikoa baliotsua da, ez berez bakarrik; baita ekosistemen funtzionamenduaren oinarria delako ere, eta hortaz, aipatu bezala, gure osasunaren eta oparotasunaren oinarria.

Ba al zenekien...?

1999-2003 aldian, Europan klimarekin zerikusia izan zuten ezbeharrek urtero 15 mila milioi eta 25 mila milioi euro bitarteko gastuak sortu zituzten.

Espezie baten desagertzea oreka naturala aldatzen du, bere ekosistema guztiaren funtzionamendua arriskuan jartzen du eta, lehenago edo geroago, era batera edo bestera, gure bizi-kalitatean eta ekonomian eragin ohi du. Nahiz eta ekosistema zehatz bateko espezie gehienek funtzioei buruz ezer gutxi jakin, ikerketek egiaztatzen dute ekosistema zenbat eta anitzagoa izan orduan eta egonkorragoa dela eta ez hain ahula. Beraz, zenbat eta anitzagoa orduan eta gaitasun handiago gure ongizatearen oinarri diren ingurumen zerbitzuak eskaintzeko. Pentsatu beharra dugu natura zerbaitengatik dela munduko enpresarik eraginkorrena... 3.000 milioi urtetan ez du porrot egin!

Hegaluzetaren harrapaketak beherakada handia izan du gehiegizko ustiapenak, lonjek duen prezioak, eta petroleoaren igoerak eraginda, lanbide tradizional hau desagertzeko zorian uzteraino.